

**LAB, Steilas, CCOO, ELA, CGT-LKN: Palestinaren alde eta genozidioaren aurka:
PARTE HARTU ASTELEHEN HONETAKO KONTZENTRAZIOETAN!!!**

Israelek Palestinan eta, bereziki Gazan, burutzen ari den Genozidioak ez du etenik, nahiz eta geraraztea eskatzen eta Palestinarekiko elkartasuna etengabe erakusten ari diren herritarrek, eragileak eta zenbait instituzio.

Horren adibide argia da Gazara laguntza daraman Ontzidia, zeina asteburu honetan Gazara heltzea espero den. Ildo beretik, pozgarria da EHU ere genozidioaren aurka azaldu izana, eta datorren astelehenean hiru Campusetan elkarretaratzeak deitu izana 11:00etatik 11:30era. LAB, Steilas, CCOO, ELA eta CGT-LKN sindikatuok unibertsitateko komunitate osoa deitzen dugu horietan parte hartzera. Bide batez, hurrengo egunetan antolatuko diren Palestinaren eta Ontzidiaren aldeko ekimenetan parte hartzeko. Era berean, EHUren Errektoretzari eskatzen diogu egin daitezkeen Palestinarekiko elkartasunez eta genozidioaren aurkako ekimenetan parte hartzea bultzatzeko erraztasunak jar ditzala.

**KONTZENTRAZIOAK: 2025eko irailaren 29an, 11:00etatik 11:30era, hiru campusetan:
Letren Fakultateko sarreran (Gasteizen), Jorge Oteiza plazan, Areto Nagusiaren
eskaileren pean (Leioan) eta Miguel Unamuno parkean (Donostian)**

Herri palestinarraren kontrako GENOZIDIOA GERARAZI!! PALESTINA ASKATU!!

LAB - Steilas - CCOO - ELA - CGT-LKN